



IKASTETXEA	AIXERROTA BHI	KODEA	015109
Arloa/ Irakasgaia	BIOLOGIA-GEOLOGIA	Zikloa / Maila	1.BATXILERRA
Irakasleak	YOLANDA GOMEZ	Ikasturtea	2015~16

HELBURUAK	EBALUAZIO - IRIZPIDEAK
<p>1.- Azalpen-eskemak eratzea Biologiaren eta Geologiaren kontzeptu, teoria eta eredu garrantzitsu eta orokorrak uztartuz, zientziaren arlo horien garapenari buruzko ikuspegi orokor bat izateko eta sistema eta fenomeno natural gailenak interpretatzeko.</p> <p>2.- Ikerlan txikiak egitea, bai bakarka bai elkarlanean, zientzien berezko estrategiak gero eta autonomia handiagoz erabiliz, modu kritikoan eta testuinguruan txertaturik interes zientifiko edo soziala duten eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko eta lan zientifikoaren izaera hurbilketazko eta sortzailea onartzeko.</p> <p>3.- Biologiaren eta Geologiaren ezagutzak askotariko testuinguruetan erabiltzea, eguneroko bizitzako egoeretan zientzia horiek teknologiarekin, gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten harremanak aztertuz.</p> <p>4.- Zientzia eraikuntza-prozesu etengabe dagoen jarduera gisa onartzea, hipotesi eta teoria kontrajarriak aztertuz eta alderatuz, debate zientifikoek giza ezagutzaren bilakaerari egindako ekarpena aitortuz.</p> <p>5.- Informazio zientifikoa zuzen interpretatu eta adieraztea hainbat euskarri eta baliabide —Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak barne— erabiliz eta Biologiarekin eta Geologiarekin zerikusia duten gai zientifiko, teknologiko eta sozialen inguruan zehaztasunez komunikatzeko terminologia egokia baliatuz.</p> <p>6.- Lurraren barrualdeaz dauden datuak ezagutzea eta horien bidez azalpeneko hipotesiak egitea bere osaketa, sorrera-</p>	<ul style="list-style-type: none">- Ea unibertsoaren egiturak eta bertako eraketa prozesuen inguruko teoriarik onartuenak deskribatzen dituen.- Ea hainbat metodoren bidez lortutako datuak interpretatzen dituen, planetaren barrualdearen egitura eta konposizioari buruzko ikuspegi koherentea eskainiz.- Ea ikerketak diseinatu eta gauzatzen dituen, lan zientifikoaren oinarriko estrategiak garatuz eta lan horren berezko jarrerak agertuz.- Ea hainbat gorabehera azaltzen dituen, hala nola sumendi eta lurrikaren eskualdeak, mendikateen eraketa, itsasoaren hedapena... horiek, betiere, plaka litosferikoaren dinamikarekin lotuz.- Ea harri mota nagusiak identifikatu eta haien konposizioa, testura, formazio-prozesua eta erabilgarritasunak adierazten dituen.- Ea Lurzorua kontserbatzearen garrantzia arrazoi-tzen duen, haren formazioaren prozesuak azalduz eta mehatxu garrantzitsuenak nahiz prebentzio-neurri batzuk adieraziz- Ea animalia eta landare-ehunak antolaketa modu gisa deskribatzen dituen, haien kokapena, ezaugarri morfologikoak eta fisiologia adieraziz.- Ea izaki bizidunak sailkatzen diren taxon nagusien funtsezko ezaugarriak deskribatzen dituen, sailkapenerako irizpide zientifikoak erabiliz.- Ea landarearen bizitza osotasun gisa azaltzen duen, haren tamaina, egiturak, antolaketa eta funtzionamendua espezie moduan mantendu eta bizirauteko ingurune fisiko edo biologikoak ezarritako exigentzia batzuei emandako erantzun zehatza dela ulertuz.



prozesu eta dinamikari buruz.

7.- Plaken tektonikak eskaintzen duen koherentzia aitortzea, bai eta proposatzen duen ikuspegi globalizatzaile eta bateratzailea ere hainbat fenomeno azaltzeko –kontinenteen desplazamendua, mendikateen eta harkaitzen sorrera eta planetaren barne dinamismoa–, eta izaki bizidunen banaketa azaltzeko.

8.- Izaki bizidunen antolaketa-eredu desberdinetara hurbiltzea, eta haien egitura eta jarduera ulertzen saiatzea, ingurune jakin batean bizirik irauteko arazoaren erantzun posible gisa.

9.- Eboluzioaren teoriak izaki bizidunen aniztasunaren aurrean eskaintzen duen azalpena ulertzea, eta geologiak erakusten dituen krisialdiak integratzea, oreka etenaren proposamenera iristeko».

- Ea animalia jakin baten bizitza osotasun gisa azaltzen duen, haren tamaina, egiturak, antolaketa eta funtzionamendua espezie moduan mantendu eta bizirauteko ingurune fisiko edo biologikoak ezarritako exigentzia batzuei emandako erantzun zehatz bat dela ulertuz.

-Ea landare eta animalien dibertsitateak biosferaren egonkortasunerako eta pertsonen bizi-kalitaterako duten garrantzia arrazoitzen duen

- Ea biodibertsitatea arriskuan jartzen duten zenbait giza jarduera adierazten dituen, dibertsitatearen galerari buruz jarrera kritikoa agertuz.

-Ea biodibertsitatearen kontserbaziorako ekintzak proposatzen dituen.

- Ea hizkuntza zientifiko egokia erabiliz lan dokumental edota esperimentalari lotutako monografiak eta txostenak lantzen dituen

- Ea zientzien garapenari eta haien aplikazioei buruzko iritzi eta erabaki arrazoituak landu eta adierazten dituen.

EDUKIEN SEKUENTZIA (denbora –tarteka; unitate didaktikoa, proiektua; ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta)

1.Ebaluazioa

- Unibertsoa
- Lurraren egitura
- Barne-geodinamika. Plaken tektonika
- Kanpo-geodinamika eta Lurraren historia

(Eduki komunak: jardunbide zientifikoa egokiro garatzeko)

2.Ebaluazioa

- Bizitzaren batasuna eta dibertsitatea
 - Izaki bizidunen antolaketa-mailak. Zelula bizitza-unitate.
 - Landare eta animalien histologia eta organografia.
 - Izaki bizidunen sailkapena



- Funtzioak: Nutrizioa (landareetan eta animalietan)

- Funtzioak: Harremana.

·Nerbio-sistema

(Eduki komunak)

3.Ebaluazioa

- Funtzioak: Harremana. (landareetan eta animalietan)

·Hormonak

- Funtzioak: Ugalketa. (landareetan eta animalietan)

- Herentzia biologikoa

- Espezieen eboluzioa

(Eduki komunak)

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

Testu liburua landu, azalpen, transparentzia, diapositiba, animazio, argazki edo web-etako informazioarekin osatuz

Bideo espezializatuak ikusi eta gero horri buruzko ariketak egin

Ariketak klasean zein etxean egin

Arlo berezi batzuk laborategian praktiken bidez sakondu eta behatze ahalmena garatu.

Egokia denean, testu zientifikoak landu edota aurkezpen txikiak bidali.

Euskarri informatikoen bidez informazioa bilatu eta landu.

EBALUAZIO TRESNAK [ahozko eta idatzizko

probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]

Testu liburua

Eskemak, grafikoak

Bideoak, mapa kontzeptualak

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK

[ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]

Kontzeptuak bereganatu eta ulertzea

Arrazonamenduak eta dedukzioak egitea



<p>Marrazkiak, diapositibak</p> <p>Laboratorioa</p> <p>Irteerak</p> <p>IKTak: arbel digitala, ordenadoreak...</p>	<p>Hizkuntza zientifikoaren erabilpena</p> <p>Proposatutako ariketak, eskemak eta lanak egite</p> <p>Proposaturiko lanak epean entregatzea</p> <p>Ariketak eta lanak osatuta eta txukun aurkeztea.</p> <p>Klasera etorri eta puntualtasunez etortzea</p> <p>Beharrezkoa den materiala ekartzea</p> <p>Eskola orduetan lan egitea</p> <p>Jarrera eta portaera egokia izatea</p> <p>Etxeko lanak egitea</p> <p>Interesa adieraztea, arreta jartzea, parte hartzea</p> <p>Ebaluazio bakoitzean bi azterketa egingo dira.</p> <p>Ebaluazioa gainditzeko azterketen batzbestekoak</p> <p>5-ekoa beharko du gutxienez.</p> <p>Gelan egindako guztia koadernoan islatua egon</p> <p>behar du. Koadernoan noizean behin jaso, ebaluazio bakoitzeko gutxienez behin baloratuko</p> <p>da.</p> <p>Gelan ikasleak daukan aditasuna, jarrera eta</p> <p>puntualitatea kontuan hartuko dira.</p> <p>Ikaslearen interesa baloratuko da.</p>
---	---

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren



berrikuspena,errekuperazio-sistema...]

- Ebaluazio bakoitzean, errekuperazio azterketa bakarra egingo da, ebaluazio osokoa.
- Ebaluazioetan gainditutako kontrolen nota ez da gordeko ez-ohiko deialdietarako
- Berreskurapena gainditzeko gutxieneko nota 5 izan behar da.
- Txarto egin dituzten ariketak berregin

OHARRAK